

## **FITXA TEKNIKOA**

### **Victoria Eugenia Antzokia**

Erregina Erregentea, 8  
20.003 Donostia – San Sebastian

Antzokia Donostiaren erdialdean dago, Okendo eta Erregina Erregentearen arteko kale-kantoian, Maria Cristina Hotelaren ondoan.

Antzokiaren sarrera nagusiarekin paraleloan dagoen atzealdetik egiten dira zamalanak. Sarreran plataforma goragailu bat du, lurretik 50 cm-ra jaitsi eta 1,30 metroko altueraraino igo daitekeena, eta ate lerragarri bat dago ondoren, 3,10 metroko altuera eta 2,40 metroko zabalera dituena.

Antzokiak ez du aparkaleku propiorik. Zamalanak amaitzean, ezin da kamioia ez Antzokian ez inguruan utzi. Hurbilen geratzen diren aparkalekuak dira honakoak:

- Lintzirin AIE aparkalekua

N-1 autobidea (Frantziarako noranzkoan)

Madril-Irun errepidea, 469 km

20.180 Oiartzun Gipuzkoa

Tel: (0034) 943.26.07.43 / 943.21.15.10

- Zubieta aparkalekua

N-1 autobidea (Gasteizerako noranzkoan)

Abalotz autobia, z/g (Zubietako hipodromotik gertu)

20.160 Donostia

Tel: (0034) 902 444 992

Neurri guztiak segurtasun-oihaletik bertatik hasita hartu dira. (Ikus plano erantsia).

Areto Nagusiko neurriak dira honakoak:

- ur-hartunea: 12,30 m.
- gorbata: 15 m.
- 21,65 m saihetsen artean, eta alde bakoitzean bi zutabe.
- 10,40 m-ko sakonera gatzarira arte.
- 20 m-ko altuera, orraziraino.

Honakoak dira gatzariaren neurriak:

- 4,50 m-ko sakonera.
- 9,80 m-ko zabalera.
- 7,50 m-ko altuera.

Areto Nagusian guztira 50 gordekin daude:

- Eszenategi barruan 36
  - 9 motordun
  - 27 orekatu
- Gatzariaren barruan 12 gordekin daude, 7,5 m-ko gehienezko altuerarekin:
  - 3 motordun
  - Eskuzko 9
- Galeria azpian bi haga motordun daude, 7 m-ko gehienezko altuerarekin.

## **CLUB ARETOA**

Materiala areto nagusitik deskargatuko da; karga-jasogailu batetik pasatzen da karga, antzokiko Club aretora iritsi aurretik.

Neurri anitzak ditu aretoak, diseinu oso berezia baitu. (ikus webguneko argazkiak)

### **Argiztapen-materiala**

#### **- LT-LIGHT HYDRA SPACE MAHAIA:**

- 2048 DMX HELBIDE
- 24 AZPIMASTER

#### **- DMX/ETHERNET SAREA:**

- RJ-45 KONEKTORE BIDEZ EGITEN DIRA DMX LINEEN KONEXIOAK

#### **- DIMMERS ETC-IES SINEWAVE:**

- 3 KWko 72 KANAL

**- PROIEKTOREAK:**

*-18 FRESNELL 650 W ADB STRAND QUARTET PROIEKTORE (ARETOAN KOKATUTA)*

*-24 ETC SOURCE FOUR PAR EA PROIEKTORE*

*-12 PAR 36 DTS CLASIC SHORT*

*-12 PAR 56 DTS CLASIC (11 ARETOAN KOKATUTA)*

*-12 500W PANORAMA (ARETOAN KOKATUTA)*

*Soinu-materiala*

**P.A. ETA KONTROL SISTEMA:**

- Yamaha 02 96v nahasketa-mahai bat
- 4 UPM-2P bozgorailu autoanplifikatu
- Bozgorailu autoanplifikatu 1, azpibaxuetarako
- 4 Drawmer MX-30 audio-konpresore

**GRABAGAILUAK ETA ERREPRODUZIGAILUAK:**

- 2 CD erreproduzigailu
- MD erreproduzigailu 1

**OHARRA:**

Kamera beltz bat dago bezeroek hainbat erabilera emateko. (Galdetu produkzioan).